

Zer da? Zertarako da?

Energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak instalatzeagatik eta energia eraginkortasuna sustatzeko birgaikuntzak egiteagatik Ondasun Higiezin eta Eraikinen gaineko Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zergan hobaria eskatzeko.

Aurkeztu beharreko agiriak

- [Eskaera orria](#)
- Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia.
- Energia komunitatea Berriztagarrien Entitate baten kidea bada adierazten duen egiaztagiria.
- Eskatzailearen kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
- Eskatutako edo jasotako beste edozein diru-laguntzari buruzko dokumentazioa
- Egindako obraren edo instalazioaren faktura xehea(k).
- Egindako ordainketen frogagiria(k).
- Lanaren edo instalazioaren azalpen laburra.

Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri bidez beroa sortzeko instalazioak:

- Administrazio eskudunak homologatutako kolektorearen agiria.

Energia Birgaikuntza:

- Ziurtagiri energetikoak, jarduketaren aurrekoa eta ondorengoa.


Energia birgaikuntza eta irisgarritasuna barne hartzen dituen higiezin birgaikuntza integraleko proiektuak:

- Ziurtagiri energetikoak, jarduketaren aurrekoa eta ondorengoa.

Udalerriko auzo edo eremuetan energia berriztagarriak sartzeko birgaikuntza integraleko proiektuak:

- Memoria tekniko laburtua.

Nola eskatzen da?

 **Aurrez aurre:** hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan (Udaletxeko beheko solairuan). Astelehen, asteazken eta ostiralean : **08:00 – 14:00.**

Astearte eta ostegunetan **08:00-19:00**

Uztaila eta Abuztuan astelehenetik ostiralera **08:00-14:00**

☎ **Telefonoa:** ezin da telefonoz eskatu. Dena den informazio gehiago eska dezakezu, edo eskaera eta informazio-orria etxera bidaliko dizkizugu, **943 337000** telefonora deituz.

: **Internet:** udalaren www.hernani.eus web orriko egoitza elektronikoa.

✉ **Posta arrunta:** ezin da postaz eskatu

Eskaera jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura

Eskaera erregistratu eta errenta sailera bideratu.

Oharrak

Deialdiaren oinarriak eta eskaera-orria Hernaniko Udalaren web orrian daude eskura:

www.hernani.eus

Araudi aplikagarria

Ondasun Higiezin gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalean (GAO 2021eko abenduaren 29) eta Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren Ordenantzian (GAO 2022ko azaroaren 29) arautzen diren oinarriak.